



Arteaga II.ak sasoian dagoela erakutsi du udan

Donostia Hiriko txapelketan txapeldunorde izan da. San Fermin eta Bilboko Aste Nagusiko torneoak ere jokatu ditu / 10

Rokodromoa, Loidibarren pilotalekutik Michelingo kirol gunera / 3

Erraustegiaren aurkako giza katea egingo dute igandean, Donostiako Kontxako pasealekuan / 4

Lasarte-Oriako errugbi jokalariek 2018-2019 denboraldia prestatzeko lanean ari dira / 11

Buruntzaldea IKTKo igerilariak, bikain Espainiako eta nazioarteko txapelketetan / 12

Merkealdiak kalera atera dira

Aterpearen Stock Azokaren bigarren eguna dute gaur / 2

EPA LASARTE HHI

2018-2019 ikasturtea



MATRIKULA EPEA ZABALIK
OFIZIALA ETA DOAKOA

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH).
- Gaztelania atzerritarrentzat.
- Tailerrak: Euskara, ingelesa, frantsesa, informatika, nutrizioa, artea, literatur tertulia.
- New Intermediate (B level) and Conversation ENGLISH.

Ordutegia:
11:00-13:00
15:00-19:00*
(*ostiralak ezik)





Deskontu onak izan dituzte bezeroek ikasturteari hasiera emateko. TXINTXARRI

Salgaiak berritzeko Stock Azoka, denda atarrietan

Aterpea merkatarien elkarrekin eta udalak elkarlanean antolatu dute Stock Azokaren beste edizio bat. Atzo hasi bazen ere, gaur ostiralez ere izango dute aukera herritarrek denboraldiko produktuen soberakinak erosteko kalean bertan

Txintxarri

Herriko merkataritzak sustatzeko Aterpeak egiten duen lana ez da makala. Ikasturte berriarekin batera ekintzei hasiera eman diete egunotan, herriko denda atarrietan egingo duten Stock Azokarekin. Bederatzi dendak parte hartuko dute aurtengoan, eta eskaintza bereziak egingo dituzte denboraldiko soberakinekin. Aterpearen ustez, "une egokia" da sasoi kanpoko produktuak saltzeko, baina baita eskaintza berriak ezagutzeko ere.

Hori da egitasmoaren helburuetako bat; salgaiak berritzeko, denboraldiko produktuak saltzea. Horrela, herriko komertzioaren bizitza indartu nahi dute.

Bederatzi komertzio

Herriko bederatzi dendak parte hartu dute aurtengo azokan: Deco 75 etxeko ehunak, Alba Moda, Olmi mertzeria, Leder oinetakoak, Arregui

elektrizitatea, Iturbe zapatadenda, Ines Flores artisautza, Mabel Moda eta Imagine jantzi dendak. Horien guztien artean jantziak, oinetakoak, etxeko arropak, eskulanak eta beste zenbait produktu erosteko aukera izango dute bezeroek.

Identifikatzeko erraza

Udalak karpa txuri batzuk utzi dizkie azokan parte hartu behar duten komertzioei. Horiek denda atarrietan jarriko dituzte, eta bertan erosi ahal izango dira eskaintzako produktuak.

Herriko merkatariak azaldu dutenez, batzuentzat mesedegarria izan ohi da ikasturte hasierako egitasmoa. Alba Moda arropa dendako Yolanda Albarentzat "lagungarria" da Stock Azoka: "Hilabete zaila izaten da iraila, udatik buelta eta ikasturte berriaren hasiera, eta hori kontuan hartuta, niri oso ondo joan ohi zait bai iraileko azoka, eta baita udaberrikoa ere".

Jendea eskaintzak begiratzera gerturatzen da, agian erosteko asmo handirik gabe, baina prezioak ikusi eta erostera animatzen direla azaldu du Albak. %50 eta %60-ko deskontuak ditu.

Beste komertzio batzuek, berriz, ez dute urteko salmentekin alderatuta alde handirik nabari. Arregui elektrizitateak, esaterako, beste hilabeteetako salmentak mantentzen ditu: "Ikasturte hasiera izanda, mahai lanpara asko saltzen ditugu, baina hilabeteak hala eskatzen duelako". Haizagailuak dituzte stockean; baina udazkena bidean, eguraldiak urte sasoi honetan ez du horiek erostera bultzatzen.

**GAUR EGUN OSOZ
ESKAITZA BEREZIAK
IZANGO DITUZTE
BEZEROEK, HERRIKO
HAINBAT DENDATAN**

Pentsiodunek mobilizazioekin jarraituko dute

Ikasturte berria hasi da, baina ez dira aurrekoaren gaitzak amaitu. Lasarte-Oriako Pentsiodunen Koordinakundeak azaldu duenez, astelehenean, hilaren 10ean, ohiko mobilizazioekin jarraituko dute. 11:30ean bilduko dira, Okendo plazan.

Pentsio publiko duinak eskatzen dituzte. Alegia,

gutxieneko 1.080 euroko ordainsaria. Gobernu aldaketa izan da Espainian, eta Pedro Sanchez presidente berriak hitzeman du gaia aztertuko duela. Baina erretiroa hartutakoak ez dira politikariek fio, eta kalean indarra egiten jarraituko dute.

Aurtengo otsaila aldean hasi ziren mobilizatzen. Hasiera batean dozena bat pertsona elkartu ziren Okendo plazan, baina hurrengo elkarretarazetan 200 pentsiodun baino gehiagok egin zuten protesta.



LAB

Lan istripuen aurka protesta

Joan den astean Gasteizko Michelinen hildako langilearen sendiari doluminak eta elkartasuna azaldu diete Lasarte-Oriako lantegiok. LABek elkarretaraztera deitu du, lan baldintzak eta segurtasuna hobetzeko eskatzeko. Azken bi urteetan lan istripuan hil den laugarren lankidea dute.



LASARTE-ORIAKO UDALA

Urtebetetze bereziarena

Ehun urte bete ditu Guadalupe Gasconek. 1918ko irailaren 1ean jaio zen lasarteoriatarra. Urteurren berezi hori ospatu du Atsobakar egoitzan, festa alai batean. Senitartekoez gainera, Izaskun Oronoz Zerbitzu Sozialetako zuzendariaren eta Jesus Zaballos alkatearen bisita izan du du. Zorionak zuri abestu ostean, hainbat opari ere jaso ditu.

Michelinera lekualdatu dute rokodromoa

Loidibarrengo rokodromoa Michelingo kirol gunean ezarri dute, hobetuta eta helduleku gehiagorekin. Kiroldegiko bazkideek doan erabil dezakete eskalada gunea. Horma Rokodromoak enpresak egin ditu lanak, 20.230 euro ingururengatik

Txintxarri

Uztailean eta abuztuan lanean egon dira rokodromoa Loidibarrendik Michelinera eramateko. Baina eskaladarako gunea prest dago dagoeneko, toki itxi batean, euritik babestua. Jesus Zaballos alkateak, Txus Alonso Kiroletako zinegotziak eta Karlos Altuna kiroldegiko kudeatzaileak aurkeztu dute rokodromo berriaren kokapena.

Udalak kudeatuko du rokodromoa. Beraz, erabili ahal izateko Michelingo kirol gunera joan beharko da. Bazkideak doan sartu daitezke; gainerakoek sarrera ordaindu beharko dute.

Ondokoa da rokodromoaren egutegia: astelehene ostiralera, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, 09:00etatik 20:00etara. Igande eta jai egunetan, berriz, 09:00etatik 13:00etara. Erabilpen egokia eta segurtasuna bermatzeko, erabiltzaileek arauak derrigor bete beharko dituzte; atarian horien kopia bat emango zaie.

Rokodromoa lekualdatzeko lanak Horma Rokodromoak enpresak egin ditu, 20.320 euro ingururengatik. Gainera, instalazioak hobetu dituzte; 300 helduleku baino gehiago jarrita, eskalatazailerak aukera gehiago izango dituzte haien ibilbidea egiteko.



Rokodromo berria, Michelinen. LASARTE-ORIAKO UDALA



Zonbi bat, Lasarte-Orian, iazko ekitaldiko aurkezpenean. TXINTXARRI

Zonbien gaua izango dute bigarrenez, urriaren 6an

Lasarte-Oriako gazteek deskontuak izango dituzte, eta Lasarte-Oriako Udalak 100 sarrera zozketatuko ditu

Txintxarri

Pasa den urtean izandako arrakasta gairatzeko asmoz antolatu du Lasarte-Oriako Udalak zonbien gauaren bigarren edizioa. Gazteen parte hartzea errazteko deskontuak egingo dituztela iragarri dute.

15 eta 30 urte bitarteko lasarteoriarrek bost euroko deskontua izango dute sarrerak erostean. Baina horretarako, ezinbesteko zenbait baldintza bete beharko dituzte: adina (15 eta 30 urte bitarte), Lasarte-Orian erroldatua egotea eta Gaztelekuan izena ematea.

Ostiralean zabalduko da izena emateko epea Gaztelekuan, eta hilaren 18ra bitarte izango dute herriarrek aukera, 12:30etik 20:00etarako ordutegian. Bertan izen emandako guztien artean 100 sarrera zozketatuko dituzte irailaren 21ean, 18:00etan, Gaztelekuko erabilera anitzeko gelan.

Laster jarriko dituzte salgai ekitaldirako sarrerak Interneten. Iazko antolatzaileen eskutik egingo dute aurrean ere, eta horien webgunean erosi ahal izango dira sarrerak: www.survivalzombie.es.

BERRIA!!!
ZURE EUSKARA MAILA JAKIN NAHI?
Zatuz Udal euskaltegi eta proba baki baten bidez esango dizugu, inolako konpromisorik gabe

2018-2019 IKASTURTEA UDAL EUSKALTEGIAN

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 19 ARTE

AI, A2 edo B1 (1HE)eko tituluak euskaltegian bertan lortzen dira. B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: IRAILAREN 20TIK EKAINAREN 20RA

- Astelehene ostegunera. Astean 10 ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan.
- Hiru ordutegi aukeran: 9:00etik 11:30era; 15:00etik 17:30era eta 18:30etik 21:00era.
- On-line (BOGA)
- 16 urtetik gorakoentzat.

ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

Diru-laguntzak badaude. Gabeletu baldintzak Udal Euskaltegian

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura). BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00



Erraustegiaren aurkako mugimenduak dei egin du igandeko mobilizazioan parte hartzera. TXINTXARRI

Erraustegiaren aurkako giza katea, estropadetan

Zubietako erraustegiaren lanak geraraztea eta Gipuzkoan birziklatzea sustatzea eskatzeko antolatu dute ekintza. Igandean Kontxako pasealekuko lehenengo arrapaladan jarri dute hitzordua, 11:30ean. "Alternatiba osasuntsuagoak badaude"

Txintxarri

Kirola eta aldarrikapena uztartuko dituzte igandean Donostian. Kontxako Bandera jokatu dute, baina zertxobait lehenago, 11:30ean, deia egin dute erraustegiaren aurkako giza katea osatzera. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak eta Donostia Bizirik herri plataformak antolatu dute protesta ekintza; hainbat sindikatuk, alderdi politikok eta talde ekologistak bat egin dute. Kontxako lehen

arrapaladan jarri dute hitzordua.

Nahiz eta lanak aurrera doazen, eta banku eta enprekin sinatutako kontratuak indarrean dauden, erraustegiaren aurkako ekintzaileek ez dute etsi nahi. "Hobe da lehenbailehen gelditzea". Zubietan eraikitzen ari den azpiegitura bertan behera uzteko ez ezik, eskatu dute hondakinen birziklapen sistema eraginkorra Gipuzkoa osora zabaltzeko.

Giza katearen antolatzaileen arabera, sobera arrazoi daude zaborrak erretzeko planta ez jartzeko. Nagusia ondokoa da:

ez da beharrezkoa. "2017an Gipuzkoan 150.000 tona errefus sortu ziren, eta joera da gero eta gutxiago sortzea. Agintariak esan dute 2022an %70era helduko garela". Hortaz, urtean 70.000 tona errefus sortzera heldu daiteke Gipuzkoa, baina erraustegia 200.000 tona urtean hartzeko diseinatu dute. "Nondik ekarriko dituzte labeak betetzeko faltako zaizkien bi herenak?". Izan ere, ekintzaileen susmoa da atzerriko zaborra ere erreko dutela Zubietan.

Errefusa tratatzeko alternatibak badaudela azaldu dute

erraustegiaren kontrakoek. "Inertizazioa, konpostatzearen antzeko prozesu baten bidez, merkeagoa eta osasuntsuagoa da". Hain zuzen, nabarmendu dute osasunarentzako "oso kaltegarria" dela zaborra erraustea. "Mundu osoko ikerketetan frogatu dute. Gipuzkoan ere sendagile askok behin eta berriz salatu dute askotariko minbiziak sortu ditzakeela".

Bestalde, alor ekonomiko dago. Eraikuntza eta funtzionamendua oso garestiak dira. "1.000 milioi euro baino gehiago gipuzkoarren poltsikotik aterako dira, ustelkeria kasutan ziprintindutako multinazional baten eskuetara".

Zubietara martxa

Igandeakoa ez da iraileko mobilizazio bakarra izango; Gipuzkoa Zutik plataformak martxa antolatu du Zubietara hilaren 23an, igandean, erraustegia eta "makrokartzela" eraiki nahi duten eremura. Iaz egin zuten lehen aldiz. 16:00etan hasiko da ibilaldia.

Taldeak salatu du Gipuzkoako Aldundia "arazo handi bat" sortzen ari dela: "Alferrikako azpiegitura horiekin 30 kilometroko erradioan bizi diren herritarrak arrisku larrian jarriko dituzte. Erraustegia gaur egungo politika neoliberalaren ikurra da". Horrez gain, ohartarazi dute Buenos Airesko, Mexiko Hiriko eta Sydneyko erraustegiaren proiektuak atzera bota dituztela azken aldian.

Gurasos Bruselan

Azkenik, Gurasos taldea Bruselan izan da egunotan. Iruzur finantziarioa, zortze publikoa eta parte hartze ezaren inguruko salaketa egin dute, besteak beste. Zerbait bilkura ere egin dute; Sindikatuen Europako Konfederazioko ingurumen gaietako idazkari nagusi Montserrat Mirrekin bildu dira, besteak beste. Hark babes osoa agertu dio taldeari. Josu Juaristi (EH Bildu) eta Xabier Benito (Podemos) eurodiputatuekin agerraldia egin dute. Halaber, Izaskun Bilbaorekin (EAJ) eta Francesc Gambusekin (UDC) bilerak egin dituzte.

Zubietara eraman nahi dute kuartela

Erraustegia, presoak gizarteratzeko zentroa, eta, orain, Loiolako kuartel militarra. Donostiako alkate Eneko Goiak Espainiako armadaren lurra eskuratu nahi ditu, Martuteneko urbanizazioarekin jarraitzeko. Eta Espainiako Defentsa Ministerioari egin dio dagoeneko kuartela lekualdatzeko proposamena: Zubietako Eskusaitzeta eremua aukeratu du Goiak.

Hasiera batean kartzela eraikitzea aurreikusten zuten, baina gero, horren ordez presoak gizarteratzeko zentroa egingo zutela jakinarazi zuten. Azpiegitura horrek tamaina txikiagoa izango duela eta, soberan gelditzen den lurretan proposatu du alkateak ezartzea kuartela.

Mahaiak berdeguneetan

Lasarte-Oriako berdeguneak eta parkeak aprobetxatzeko bederlatzi egurrezko mahai jarri dituzte zenbait tokotan: Brunet parkean bi eta Basotxo parkean, berriz, lau. Gainerakoak aste honetan jarriko dituzte; bi Atsobakarreko pergolan eta beste bat Brunet parkean gehituko dute. Azken eremu horretan arrakasta handia izan dute, eta beste bat gehitzea erabaki du udalak.



LASARTE-ORIAKO UDALA

Merceroren museo birtuala

Lasarte-Oriako Udalak maiatzean aurreratu zuen Antonio Mercero herritarraren lanekin museo birtuala martxan jarriko zuela, zinemagilea zendu ostean. Orain zerbitzu hori diseinatu, egin eta martxan jartzeko lehiaketa publikoa iragarri du. Enpresek irailaren 17ra arte izango dute epea haien proposamenak aurkezteko.



TXINTXARRI

Gaur itxiko da epea Zentro Zibikoan izena emateko

Ikasturte honetako ikastaroak aurkeztu dituzte Zentro Zibikoan. Lasarte-Orian erroldatukoek doan izango dituzte horietako batzuk. 'Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeen gunea' asteartetan izango da; ez da izenik eman beharko joateko

Txintxarri

Aurkeztu dituzte 2018-2019 ikasturteko Emakumeen Zentro Zibikoko ikastaroen tailerrak. Izena emateko epea ere irekita dago, eta gaur bertan, ostiralean, itxiko da. Zentro Zibikoan jaso daiteke informazio gehiago, baita izena eman ere. "Askotariko" ikastaroak daudela nabarmendu dute antolatzaileek. Horietako asko, gainera, doakoak dira. Plaza kopurua baino handiagoa bada eskaria, zozketa egingo dute izen emandakoen artean.

Jesus Zaballos alkateak, Zentro Zibikoko Berdintasuneko teknikari Maite Iglesiasek eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendari Izaskun Oronozek aurkeztu dituzte ikastaroak. Horrez gain, adierazi dute *Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeen gunea* asteartetan izango dela; ez da izenik eman beharrik hara joateko. Erraztasunak eman nahi dituzte, eta, horretarako, haurtzaindegi zerbitzua jarriko dute; hiru egun lehenago abixatu beharko da horretarako.

Bestalde, Autokudeaketa Zerbitzua eskaintzen du



Izaskun Oronoz, Jesus Zaballos eta Maite Iglesias. LASARTE-ORIAKO UDALA

zentroak; taldeak zein elkarteak baliaitu daitezke horretaz. Zentroa doan utziko diete, baldin eta lekua libre badago eta dirua irabazteko asmorik ez duen ekitaldia bada.

Talde dinamikak

Dirua irabazteko asmoarekin ere balia daiteke zentroa, udaleko ordenantza fiskaletan jasota dagoen bezala.

Ekitaldi guztiak talde dinamika labor batekin osatuko dituzte, berdintasuneko edukiak, ahalduzko prozesuak eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko. Gainera, udalaren arabera, euskararen erabilera bultzatzeko onetsia duen planean adostutako hizkuntzazko jokabideak jarraituko dituzte ikastaro guztietan.

Etxez-etxeko laguntza zerbitzua kudeatzeko lizitazioa martxan da

Sostengu orduak gehituko dituzte. Horretarako, erabilzaillea gizarte langilearekin jarri beharko da harremanetan

Txintxarri

Abuztuaren 29an zabaldu zuten eskaintzak aurkezteko epea, eta urriaren 3ra bitarte izango da horretarako aukera. 60 urtez gorakoez gainera, dependentzia edota desgaitasunen bat duten pertsonak ere jaso ahal izango dute zerbitzua. Bi urterako zerbitzua izango da, baina

urtebeteko beste bi luzapen egiteko aukerarekin. 1.977.021,78 euroko (BEZ barne) prezioa finkatu dute lizitazioarentzat.

Etxebizitza komunitarioak

Lizitazio berriak hobekuntzak izango ditu. Beste hainbaten artean, sostengu orduak gehituko

dituzte, asteko arreta orduak eta gaueko arreta zerbitzua ahalbidetuta.

Lasarte-Oriako Udalak bi etxebizitza komunitario dauzka, 60 urtez gorako pertsonentzat. Gaur-gaurkoz zortzi plaza daude guztira, eta horietatik zazpi jadanik beteta daude.

Etxebizitza horietan eguneko arreta orduen ratioa 1,5 ordukoa izango da lanegunetan, eta 0,5 ordukoa, berriz, asteburu edo jaiegunetan. Zerbitzu horiek eskatzeko gizarte langilearekin hitzordua eskatu behar da, edota 943 376179 telefonora deitu.



TXINTXARRI

Panel gorriak, kartelak jartzeko

Lasarte-Oriako Udalak hogeit hamar informazio-panel berriren hornidura esleitu du. Esleipenduna Apata aroztegia da. Panelek 8.095 euroko kostua dute. Panel gorriak herriko hainbat tokitan ezarriko dituzte, egun daudenei gehituta. Horri esker, herriko elkarteek Lasarte-Oriako puntu askotan haien informazioa zabaldu ahal dute, eta, bide batez, kaleak garbi mantendu.

Basaundi eta asfaltatzea, udalaren hurrengo lizitazioak

Auzoko berrurbanizazioko lanak aurten dira hastekoak. Herriko hainbat kaletako asfaltoa ere berrituko dute

Txintxarri

Martxan da Basaundi Bailara urbanizatzeko obraren lizitazioa. Abuztuaren 2an ireki zuten eskaintzak aurkezteko epea, eta gaur bertan, hilaren 7an, itxiko dute. 1.820.588 eurokoa, BEZ barne, da lizitazioko prezioa. Aurten bertan dira hastekoak lanak, eta, udalak adierazi duenez, bederatzi hilabete iraungo dute. Inguru guztia asko aldatuko du, eta nabarmen hobetuko du irisgarritasuna. Azpiegiturak berritu egingo dituzte, eta egun zintzilik dauden kableak lur azpian sartuko dituzte.

Auzoaren barrualdean soilik oinezkoak ibili ahal dira, eta aisiarako eta ariketa fisikorako erabilera publikoko eremuak izango dira. Horretarako, hiru barne plaza sortuko dituzte. Trafikoa eta aparkatzeko eremua kanpoko eremuetara eramango dute.

Haur jolasen zonalde bat, ariketa kardiobaskularrerako makinaren zonalde bat, eta bizikletentzako bi aparkaleku jarriko dituzte. Lizitazioan proiektuak komun publiko bat aurreikusten du hobekuntza moduan.

Proiektua lantzeko parte hartze prozesu bat abiatu zuen udalak. Horrela, herritarrek iritzia eman eta proposamenak egin ahal izan zituzten.

Asfaltatzea

Baina ez da Lasarte-Oriako obra bakarria izango. Izan ere, asfaltatzeko kanpaina hasi du udalak, herriko errepideen zati bat berritzeko. Lizitazioko prezioa 1.537.390 eurokoa da, eta asfaltatu beharreko bideen zerrenda ezartzen du. Baina eskaintza hobetzeko aukera uzten du, metro karratuen poltsa baten bitartez. Udalak erabakiko luke etorkizunean zein gune asfaltatu, ikusten dituen beharren arabera. Lanak burutzeko epea ere zehazten du proiektuak: 103 egun gehienez.

Horrez gain, herritarrentzako enbarazuak sahisteko edo gutxitzeko betebeharra ezarri dio udalak kontratistari; errei bat beti zirkulatzeko moduan utzi beharko dute, edo zenbait lan gauetan egin.

Udalak berriz ere aterako du proiektua lizitaziora, aurrekoa hutsik geratu baitzen, lehengaien prezioen desfase baten ondorioz.

PLAZAN BAZAN

Igeritokian Lasai ederrean



Neska gazte hau Amaia da. Ikusten al duzu igeritokian? Ainhoa ere aurkitu behar zenuke, Amaiaren ahizpa bikia da.



Tiral Hori kasualitatea! Mainer ere hemen da, Amaiaren eta Ainhoaren lehengusina. Eta horrek ere badu ahizpa bikia. Eider du izena. Aurkitu duzu?



Eta mutiko hau Julen da, Eiderren eta Mainerren laguna. Igeriketara ez da oso trebea... Non ote dago?

Igeritokiko debekuen arabera, ba al da araua betetzen ez duenik?

Zein bide egin beharko dute txirrindulariek dauden tokitik abiatu eta helmugara heltzeko?


Labirintoa



Sudokua

Zer esaten du zakur zaunkariak? Guk dakigula, "zaunk!". Horixe esaten du zakurrak, zaunkaka ari denean. Osa ezazu sudokua, hitza osatzen duten hizkien bidez (Z, A, U, N, K, !). Gogoratu hizkiek behin agertu behar dutela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Z				
	!		N	A
	A		U	
U		!		
!	A		U	
				Z



Soluzioak: www.plazanbazan.eus

Egilea: Garbiñe Ubeda

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2018-19



ONDO iBiLi!

BEKA
matrikularen
arte %85a

ABIAPUNTUA

Zu zeu eta zure errealitate linguistikoa.

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
 - Maila guztiak.
 - Orduzabala.
 - Txandaka aritzeko aukera...
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Bekokale bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 3tik 19ra

Muntteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behe
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 3tik 28ra

Bidaia ezazu zuzenean herriko agentzia batekin, ziurtasun osoz.

GELDIALDIAK

- Haurrarekin hitz egitea...
- Gauza laburrak idaztea...
- Titulu bat eskuratzea: B1, B2, C1, C2
- Lagunekin, lankideekin, familiakoekin euskaraz aritzea...
- Euskarazko kultura, esperientziak, jarduerak hobeto ulertzea, parte hartzea, parte izatea...



ONDO iBiLi!

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienerako aprobetxamendua gainditua.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.



Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus



Hizkuntza bat ikasteak ahalegin handia eskatzen du. Hizkuntza edozein dela ere, ikasleek dedikazio eta denbora eskaini behar diote zeregin horri. Baina ematen ditu gero bere fruituak. Batez ere, euskara bada ikasten den hizkuntza hori. Izan ere, Buruntzaldeko euskaltegiek euskara maila guztietan ikasteko eta praktikan jartzeko aukera eskaintzen dute. Eskualdeko udalen helburua matrikulazioak bultzatzea da, eta, horretarako, diru laguntza sortak eskaintzen dituzte. Gainera, laguntza horiek HABEk ematen dituenarekin bateragarriak dira. Horrenbestez, Buruntzaldeko herritarrei ia doakoa atera dakieke ikastaroa; apustu segurua da euskara ikastea.

Ikasturtea hastera doa. Aurrekoan, 2016-2017koan, 946 ikasle aritu ziren euskaraz ikasten Buruntzaldeko euskaltegiren batean. Eskualdeko Euskara Zerbitzuen helburua ikasle gehiago izatea da, eta joan den ikasturterako helburu argia jarri zuten: 1.000 ikasletara iristea.

Artean ikasturtea itxi gabe da, eta, beraz, irail amaiera arte ezingo dira matrikulazioen behin betiko datuak jakin. Edonola ere, orain arte bildutako datuei erreparatuta, baikor agertu dira eskualdeko euskara teknikariak. Udarako ikastaroen datuen faltan, matrikulazio gutxi batzuk behar dira muga hori gainditzeko.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek ematen dituzte diru laguntzak euskara ikasteagatik. Halere, herri bakoitzean laguntza horiek jasotzeko baldintzak eta diru laguntza kopurua desberdinak dira. Baina badira ezaugarri komun batzuk. Esaterako, gutxienezko asistentzia bete behar da, eta erroldatuta egon behar da herrian bertan. Langabetuei ere laguntza handiagoak ematen dizkiete; %100 kasu batzuetan, 664 euro arteko mugapean.

Horrez gainera, HABE Helduen Alfabeta eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ere laguntzak ematen ditu. 2018. urtean 1.800.000 euro emango ditu, eskatzaileen artean banatzeko. Ondokoak dira baldintzak: batetik, 2017ko martxoaren 17tik 2018ko abuztuaren 31ra euskaltegi edo



Euskaltegietako ikasleak, apunte artean, ikasturte amaierako azterketarako prestatzen. BURUNTZALDEKO UDALAK

Euskara ikastea, apustu segurua

Buruntzaldeko udalek euskaltegietako matrikulak ordaintzeko diru laguntzak ematen dituzte, euskara ikastea bultzatzeko. Ikasleari ia doain atera dakioke ikastaroa. Gainera, eskaintza zabala dago eskualdean. Iaz 1.000 ikasle inguru izan zituzten

euskararen zentro homologatu batean matrikulatuta egon beharko da; bestetik, 2017/2018 ikasturtean HABEren maila bat edo baliokideren bat egiaztatu beharko da. Diru laguntza horiek egiteko eskabidea 2018ko irailetik aurrera egin daiteke.

Ikasleak

Ikasle ugari animatu dituzte laguntzek euskaltegietan izena ematera. Baina beste motibazio ugari ere badituzte ikasle horiek: lana bilatzea, galdutako hizkuntza berreskuratzea, jakin-mina...

Esaterako, Edurne Arnaiz aurtenean animatu da euskaltegira. "Niregatik apuntatu nintzen; euskara ikasi nahi dut, Euskal Herrian bizi naizelako". Badaki baliagarria izango zaiola lana bilatzerako orduan, administrazio publikoan, adibidez.

Gainera, hasieran uste zuenaren kontra, ez du uste hizkuntza zaila denik. "Ulertzeko ez da batere zaila. Hitz egitea kostatzen da, beste hizkuntzetan bezala".

Ez da zailagoa

Maialen Heras, berriz, hirurgarren profilerako azterketa prestatzen ari da. Euskaraz badaki, euskaldun zaharra da, baina euskararen gaitasun agiria behar du lanerako. "Bai, euskaltegian asko ikasten da, baina nik hobetzeko gehiago irakurri beharko nuke". Haren ustez,

IKASLEEK GUSTURA AMAITU DUTE IKASTAROA: "KALEAN IKASITAKOIA OSATU DUGU IKASGELAN"

euskara ez da beste hizkuntzak baino zailagoa. Ingelesarekin alderatu du. "Niri ingelera egiten zait zailagoa".

Ekaina bukaera izaten da azterketa garaia, eta uda iritsi ahala hasten dira ikasleak ikasitakoa erreparatzen. Almudena Carvajal da horietako bat. "Betidanik izan dut ikasteko gogo. Txikitan zerbait ikasi nuen, baina sakondu nahi dut". Helburu bikoitza du: batetik, txikitan ikasitakoa berreskuratzea. Baina oposaketak prestatzen ari da, eta, horrenbestez, ongi etortzen zaio euskararen ziurtagiria eskuratzea. Sonia Garcia harekin ibili da euskaltegian: "Oso gustura ikasi dugu, primeran moldatzen gara irakaslearekin. Kalean ikasten duguna osatzen dugu euskaltegian".

Buruntzaldeko udalen diru laguntzak

Andoain

- **Baldintzak:** Andoainen erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %85 guztiei; familia ugariak edo diru sarrera murriztuak dutenei, %100. Autoikaskuntza, %100. 664ko muga.

Astigarraga

- **Baldintzak:** Astigarragan erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Kasu guztietan 600 euroko muga izango du laguntzak. Matrikularen %75. Langabetuei, merkatariei eta 12 urtetik beherako haurren bat dutenei: %100.

Hernani

- **Baldintzak:** Hernanin erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %70. Langabeei, %90. 500 euroko muga.

Lasarte-Oria

- **Baldintzak:** Lasarte-Orian erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %85.

Urnieta

- **Baldintzak:** Urnietan erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %80.
- **Diru laguntza:** Langabeei, %80. Besteei, %50. 500 euroko muga.

Usurbil

- **Baldintzak:** Erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %80.
- **Diru laguntza:** Guztiei, matrikularen %100. 600 euroko muga.

*Buruntzaldeko udalek %75 - %100
artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!*

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

*dena irabazteko,
ezer ez galtzeko!*



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoingo AEK
Plazaola, 2.
andoain@aek.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
943 372 863
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801
607592864
Zilegi eskola: 663043314

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
eta Nabarra Oñatz 3
607610687

**Lasarte-Oriako Udal
Euskaltegia**

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko Udal
Euskaltegia**

Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.net
943 331 896

URNIETA

Urnietako AEK
Euskaltegia
Errekalde kalea, 1



Axier Arteaga, Donostia Hiriko torneoko finalean tanto bat ospatzen. 21IGUALES

Arteaga: "Uda honetan koska bat egin dut gora"

Asegarcek Axier Arteagaren aldeko apustua egin du udako txapelketetan, eta ongi erantzun du Lasarte-Oriako pilotariak. Ez du txapelik lortu, baina maila ona eman du pilotari handien aurka. Donostia Hiria torneoan sartu zen Rezustarekin batera

Adrian Garcia

Pozik dago Axier Arteaga (Lasarte-Oria, 1996), nahiz eta atsedean hartzeko denbora gutxi izan duen azken aldian; Asegarcek bere aldeko apustu garbia egin du, eta udako hiru txapelketa garrantzitsu jokatu ditu: San Fermin, Bilboko Aste Nagusia eta Donostia Hiria torneoak. Ez du txapelik lortu, baina ongi jokatu du pilotari handien artean, eta itxura ona eman du hiru torneotan. "Ikasteko balio izan dit; oso gustura geratu naiz egindako lanarekin". Halaber, aste honetan bertan garaipena lortu du; Ordiziako festetan jokatu du Eskirozekin batera, Laso-Erasun bikotearen aurka (22-18).

San Ferminetan bi tantorengatik geratu ziren finaletik kanpo azken momentuan. "Pena handia izan zen unean bertan. Baina ez genituen etxeko lanak egin, eta besteen emaitzen esperoan egoteak hori dauka", adierazi

dio TXINTXARRI-ri. Jon Ander Albisurekin batera egin zuen debuta torneoan.

Donostian finala

Bilbon finalerdietan geratu zen kanpoan, baina partida ona bete zuen. Gaizki hasi zuten norgehiagoka; hamar tantoko desabaintaila izan zuten (19-9), baina ia buelta ematea lortu zuen Arteagak. Hamahiru tanto egin zituen, eta garaipenetik gutxira geratu ziren (22-19).

Albisu ere izan zuen lagun bikoteko partida horretan, baina freskura apur bat falta zitzaion atzelariari. "Maila nahiko txukuna eman nuen, gustura geratu nintzen nire partidarekin. Anderrek partida asko jokatu

"ERRESPETUZ ARITU NAIZ, BAINA GAUZAK ONGI ATERAZ GERO, EDOZEINI EGIN DAKIOKE AURRE"

zituen abuztuan, eta ez zuen bere egunik onena eduki".

Donostiako Hiria torneoan egon zen txapela eskuratzetik gertuen, Rezusta atzelariarekin batera. Iribarria eta Albisu garaitu zituzten lehenengo (16-22), baina ezin izan zuten Olaizola II.a-Zabaleta bikotearekin. "Ez nuen agian partida oso ona egin, baina ez nintzen gaizki ibili. Azken finean, gaur egun dauden bi atzelari onenen aurka jokatu dut, eta esan daiteke ere, Altunarekin batera, aurrelari onenaren aurka: Aimar".

Pilotari handien aurka lehiatu eta maila ona emanda, konfiantzaz bete da Arteaga. "Hasiera batean errespetu handiz aritu naiz. 'Nola jokatu du ba nik hauen aurka?', pentsatzen nuen. Gero ikusten da gauzak ondo eginez kontra egitea posible dela". Gaztea izan arren, edozeinen aurka ongi lehiatzeko gai da egun. "Uda honetan koska bat egin dut gora".



Iraia Iparragirre, denboraldi honetako saio batean. REAL SOCIEDAD

Asteburu honetan hasiko dute futbola goi mailako taldeetan

Lehenengo eta bigarren mailan jokatzeko dute herriko hiru futbolarik: Realan, Añorgan eta Athletic B-n

Txintxarri

Denboraldi-aurrea aspaldi hasi zuten batzuk. Futboleko goi mailan asteburu honetan hasiko dute denboraldia, eta Lasarte-Oriak aurten ere izango ditu ordezkariak lehenengo eta bigarren mailatan. Iraia Iparragirre Realeko defentsan ordezkazina izan da aurreko denboraldiko bigarren zatian. Bestalde, Añorga taldean jokatzeko dute Izaskun San Aniceto aurrelariak eta Itxaso Contreras defentsak. Azkenik, bigarren mailan ere, Irati Urruzola Athleticen bigarren taldean dabil.

Iparragirrek ez du denboraldi-aurre gozoa izan guztiz. Izan ere, aurreko asteburuan Athleticen aurka galdu zuten Euskal Herriko Kopako finala. 3-0 aurreratu ziren bilbotarrak lehen zatian. Gol batekin markagailuan gerturatu zen Reala, baina dagoeneko partida erabakita zegoen; 5-1ekin altxa zuten kopa bizkaitarrek.

Edonola ere, benetako partidak asteburu honetan hasten dituzte. Ez dute erraza izango, Iberdrola ligako lehen partida Kanariar Uhartetan jokatu baitute. Igandean dute hitzordua Teneriferen aurka.

Iaz zortzigarren postuan amaitu zuen Iparragirrerren taldeak, eta Espainiako Kopa jokatzeko txartela eskuratu zuten ozta-ozta. Jokalariak liga hasi aurretik emandako prentsaurrekoan esan dutenez,

denboraldi honetan "pauso bat aurrera" egin nahi dute.

Bigarren maila

Iparragirre ez da goi mailan arituko den herritar bakarra. Bigarren mailan bi taldeetan ordezkariak izango du Lasarte-Oriak. Alde batetik, Añorga Kirol Elkartearen jarraituko dute San Anicetok eta Contrerasak. Talde horretako entrenatzaileak ere lasarteoriarrak dira: Javi Soltxaga eta Julen Ormazabal. 2017-2018 denboraldia zazpigarren sailkatu ziren. Estreinua igande eguerdian dute, Añorgan bertan, Oliver taldearen aurka.

Hain zuzen, Urruzolak Añorgatik eman zuen jauzia Athleticen bigarren taldera. Denboraldi bikaina egin du defentsak, bigarren sailkatu baita ligan talde bizkaitarra; lasarteoriarrak ligan partida guztiak jokatu ditu. Igandean 17:00etan izango dute ligako lehen partida, Lezaman, Osasunaren aurka.

Ostadar SKT

Bestalde, Ostadarreko seniorrek hilaren 23an hasiko dute liga. Azken bi urteetan igoera fasea jokatu dute, baina kanpoan geratu dira. Halere, aurten aldaketak egin ditu federazioak, eta bi multzotan banatuko dituzte erregionalak, mutiletan bezala. Herriko taldeak ohorezko mailan jokatu du.



Aitor Urangaren oroimenezko partidaren irudia, Michelinen. JULEN LIZASO

Errugbi taldeak, denboraldia prestatzen

Babyauto Zarautz Beltzak eta Hernani Errugbi taldeetan dabilzan herritarrek lagunartekoak jokatzen ari dira, 2018-2019 denboraldia prestatze aldera. Beltzak taldeko Errugbi Eskola ere gaur jarriko da martxan. Hasiberriak diren haurren gurasoek kezka argitu ahalko dituzte

Txintxarri

Beltzak taldeko Errugbi Eskolako kideak 2018-2019 denboraldia prestatzeko lanetan hasiko dira gaur, ostiralez. 10, 12 eta 14 urtez azpiko taldeak 18:00etan Michelingo kirol gunean bilduko dira, eta kirola ezagutu nahi duten haurrek ere hurbiltzeko aukera dute.

Josemari Nuñezek zuzenduko ditu haurren saioak. Bitartean, Manu Pelaez, Beltzak taldeko lehenakariak gurasoek kirolari edo taldeari buruz izan ditzaketen kezka eta beldurrak argituko dizkie. Kuotarik ez dute oraindiko gurasoek, errugbia egin nahi duten haurrek oztoporik izan ez dezaten. Beltzak taldeko kideek haur eta gazteak gonbidatu dituzte kirol hau ezagutu eta egitera.

Denboraldia hastear

Beltzen gainontzeko taldeei dagokionez, abuztuan hasi ziren lanean. Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz Beltzak taldeak denboraldi-aurreko bigarren hitzordua izan zuen: Urruñako hiruko lehiaketa, Lapurdin.

Urruña eta ASSM Rugby Saint Martin taldeekin neurtu zituen indarrak taldeak. Azken horren aurka ederki moldatu zen, eta garaipena erdietsi zuen. Bigarren partidaren ordea, ezin izan zuen etxeko taldearen aurka. Xabier Rekondo, Adrian Apaolaza eta Gorka Aristondo herritarrek jokatu zituzten bi partidak.

Aurreko asteburuan, berriz, Iñaki Quesadaren omenezko hiruko txapelketa jokatu zuten, Zarauzko Astin. Etxeko taldeaz gain, Hernani B-k eta Atletico SS-ek osatutako taldea, eta Urruña izan ziren lehian.

Denboraldiko lehen partida, irailaren 16an jokatu du taldeak, CRAT A Coruña taldearen aurka, Galizian. Partida horiek taldea sendotzen lagunduko dute, izan ere, urte gogorra aurreikusten baitu taldeak. Ohorezko B mailako taldeek jokalaritza ugari fitxatu dituzte hamabostekoak indartzeko.

Hernanin ere, gogor

Hernani Errugbi taldea ere lanean ari da. Bertan Jon Ander

Puertas, Enara Ramirez, Oihane Puertas eta Paola Vega lasarteoriatarrek jokatzen dute.

Azken partidaren Ohorezko mailan mantentzea lortu zuen Jon Ander Puertas taldeak. Bartzelonan jokatu dute denboraldiko lehen partida, irailaren 16an. Arerioa Barça Rugby da.

Hernaniko taldeak abuztuan ere jokatu ditu lagunartekoak, sasioa hartzen joateko; Sport Athlétique Mauleonaisen aurka izan zuten horietako bat. Eta ez da partida bakarra izango: Saint Jean de Luz Olympique izango dute igande honetan aurrez aurre.

Bestalde, Enara Ramirez, Oihane Puertas eta Paola Vega, berriz, Euskal Ligan lehiatuko dute. Iraila amaieran emango diote hasiera denboraldiari, baina motorrak berotzeko, aurreko asteburuan Zizurkilen I. Melokotoi txapelketa jokatu zuten. Iruñeako La Unica, Ordizia, Bilboko U.R.B. eta Donostiako Bera Bera izan zituen arerio, eta bigarren postuan amaitu zuen txapelketa.

Raul Gomez podiumeko bigarren koskan, Hondarribian eta Ergobian

Lasarte-Oria Trail taldeko kideek Axari trail proban lehiatuko dute igandean, 25 kilometroko ibilbidean

Txintxarri

Raul Gomez Margallo herritarrek ez du atsedenik hartu udan. Hainbat lasterketan parte hartu du, eta azken bi asteetan, Hondarribian zein Ergobian, bigarren postua eskuratu du.

Hondarribiako Guadalupe igoeran, Chakib Lachgar errenteriarrek garaitu zuen 33 segundoko tartearrekin. Ergobiako krosean, berriz, zazpi segundo besterik ez ziren izan Aitor Regillaga tolosarraren eta herritarren artean.

Asteburu honetan ere, lasterka egingo du Margallok. XVIII. Urgull Gaztelutxo krosetan irteeran izango da bihar, larunbatean.

Bestalde, Idiazabalen egingo den Axari trail mendiko lasterketan ere herritarrek izango dira, igandean: Juan Luis de la Mata, Anabel Eleno, Imanol Galarraga, Ricardo Marcos eta Javi Olazagoitia.

Aralar eta Aizkorri-Aratz parke naturalen arteko mendietan 25 kilometroko bidea egin beharko dute lasterkariek.



GORKA ARISTEGI

Udan sasioa ez galtzeko

LOKEko judoek aste honetan hasi dute denboraldia, baina aurrez prestaketa saioak ere egin dituzte, abuztuan. Azkena, asteartean amaitu dute.

Bost egunez Euskal Federazioak antolatutako prestaketa saioetan aritu dira Lasarte-Oriako hainbat judoka: Josu Olmos, Asier Sagasti, Beñat Elizalde eta Eneko Eizagirre. "Oso entrenamendu interesgarriak" izan dira, Gorka Aristegi entrenatzailearen esanetan.

Ander Bardaji, Espainiako Kopako partidaren erabakigarria

Ander Bardaji herritarrek Bigarren B mailako Fuenlabrada taldean jokatu du denboraldi honetan. Ahulkian egon behar izan du denboraldiko lehen partidatan. Asteazkenean, ordea, Espainiako Kopako partidaren erabakiorra izan zen Lasarte-Oriako gaztea. Internacional de Madrid taldearen aurkako partida binako berdinketarekin amaitu zen, 0-2

galtzen joan ostean eta Fuenlabrada jokalaritza gutxiagorekin egonda. Penaltietan Bardajiren geldiketari esker txapelketa aurrera egin zuen Fuenlabradak (4-5).

Abuztuan hartu zuen erabakia, aurreko denboraldia Huescan partida bakarria jokatu ostean. Urrian min hartu eta sorbaldan ebakuntzan egin behar izan zioten, eta denboraldi osoa galdu zuen. 2018-2019 denboraldi amaiera arte egongo da Bardaji Madrilgo taldean minutuak pilotzen. "Ilusio handiarekin" hasi da lanean.



Aintzane Sarobe eta Martin ahizpak Espainiako Txapelketan. BURUNTZALDEA IKT

Garaikurrak kolporatuta, denboraldia hasteko prest

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak marka onak onduta amaitu dute denboraldia; Abuztuan jokaturako Espainiako Txapelketan zilarrezko dominak lortu dituzte Martin ahizpek. Atsedean hartuta, datozen egunetan hasiko dituzte entrenamenduak

Txintxarri

Ikasturte berria hasi da, eta Buruntzaldea IKTko igerilariak ere laster hasiko dituzte entrenamenduak. Uda osteko etenaldiaren ostean, gogor ekingo diote aurtengo denboraldiari. Merezitako etenaldia amaitu berri dute igerilariak; denboraldia "gogorra" izan baita, baina egindako

esfortzuek eman dute fruitua, eta emaitza "bikainak" lortuta amaitu dute, horiei utsiz berriz ere hasteko.

Espainiako Txapelketa

Emaitza onak lortuta itzuli dira Buruntzaldea IKTko igerilari infantilak. Abuztu hasieran Madrilen jokatu den txapelketan

aritu dira Leire eta Ainhoa Martin ahizpak, eta Aintzane Sarobe.

Ainhoa Martinentzat denboraldia "gogorra eta luzea" izan bada ere, "bikain" amaitu du, Borja Apeztegia entrenatzailearen esanetan. Txapelketako lehen egunean, 100 m. bular proban, finalerako sailkapena lortu, eta 1:13,46ko denbora eginda Espainiako

txapelkunorde izan da. Marka pertsonala hobetzeaz gain, taldeko absolutu mailako errekor berria ezarri du. Hori nahiko ez, eta 50 m. bular proban ere marka pertsonala hobetu du.

Leire Martinek emaitza ona ondu du 400 metro lau estiloko proban. Finalerako sailkatuta, lehen postuetan mantendu da proba hasieratik: "Tximeleta eta bizkar estiloetan oso ondo moldatzen da". Azken 50 metroen faltan, bigarren postuari eutsi dio, eta 5:02,96ko denbora eginda, Espainiako txapelkunordea da. Euskadiko errekor berria ere ezarri du.

Aintzanearentzat lehenengo Espainiako Txapelketa izan arren, maila "bikaina" erakutsi du. 100 m. libre probako kanporaketan 1:02,84ko denbora eginda, aurretik zuen denbora (1:05) hobetzearekin batera, 14 urteko taldeko errekor berri bat markatu du. 200 m. libre

proban ere marka pertsonala berria ezarri du, 2:18,44ko denbora eginda. Horrez gain, 50 m. librean 29,08ko denbora lortuta, marka pertsonala lortu du.

Nahia Zudaire Dublinen

Abuztuaren 13tik 19ra Dublinen egin den *World Para Swimming Allianz European Championships* txapelketan aritu da Nahia Zudaire, eta emaitza onak lortuta itzuli da.

200 m. lau estilo proban marka pertsonala hobetuta finalera sailkatu da, eta are denbora hobea lortuta (3:13,02) seigarren amaitu du proba. 400 m. librean ere 5:29,24ko denborarekin marka pertsonala berria ondu, eta Espainiako absolutu mailako errekor berria lortu du. Txapelketari amaiera borobila emateko, 50 m. librean Espainiako errekor berria egin du, baita 100 metro tximeletan ere.

2018-2019ko denboraldi hasiera

Irailaren 10ean ekingo dio Buruntzaldea IKT-k igeriketako denboraldi berriari, eta horretarako izen emate epea zabaldu du. Jakinarazi dutenez, klubaren webgunetik (www.buruntzaldeaikt.eus) bertatik eman behar dute izena interesatuek, baina inork arazorik izango balu, 696 506 632 telefono zenbakira dei dezake. Entrenamenduen egutegi eta ordutegiak ere bertan kontsultatu daitezke.

Kuotak ere webgunean bertan eman dituzte jakitera arduradunek. Oinarrizko kuota (asteen bi edo hiru egunez entrenatuz gero) 57,00 eurokoa da, hilabetero. Igeriketa taldean senide bat baino gehiago dituzten familiek hobariak izango dituzte, eta DSBE laguntza jasotzen dutenek kuotaren %75 ordainduko dute, ezinbesteko ziurtagiria aurkeztuta. Sei kuota helbideratzen dira: urriaren hasieran, azaroaren hasieran, abenduaren hasieran, urtarrilaren hasieran, otsailaren hasieran eta martxoaren hasieran azkena. Hortik denboraldi amaiera bitarte ez da kuota gehiagorik ordaintzen.

Informazio gehiago nahi duenak, info@buruntzaldeaikt.eus helbidera idatzi dezake, edo 696 506 632 telefono zenbakira deitu.

Ederki itsas zeharkaldietan

Lasarte-Oriako igerilariak parte hartu dute udan egin diren itsas zeharkaldietan, emaitza onekin. Irlako zeharkaldian, esaterako, Leire Martinek bigarren postua eskuratu du. Irtati Arzallusek zazpigarren postua eskuratu du hiru probatan. Izaskun Salazarren Master mailako hirugarren postua lortu zuen Paseo Berriko proban, eta maila berean, Xabi Elizegi laugarren izan zen Txingudiko Badian. Larunbata honetan Kontxako Badiako zeharkaldia jokatu da.



SANTIAGO FARIZANO/DONOSTITIK.COM

Kiroldegiko ikasturte berriko eskaintzan izen emateko epea

Orain arteko kirol jarduerekin batera, eskaintza berria izango dute bazkideek aurtengo: hipopresiboak eta kirol aholkularitza. Azken hau muskulazio gelan egingo dute, eta kirol makinaren erabilera egokia ikastearekin batera, entrenamendu gida bat eskuratzeko aukera ere izango dute bezeroek. Baina ez hori bakarrik; zerbitzu berezia

kontratatzeko dutenek, entrenatzeko programa pertsonala egingo zaie.

Jarduerak astelehenean hasiko dira (haurren igeriketa ikastaroak ezik), baina hilaren 14ra arteko saioak irekiak izango dira. Kirol arduradunak ohartarazten dute, ekintzak probatu nahi dituzten erabiltzaileek aurrez izena eman beharko dutela. Kiroldegiko bulegoan, asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 12:30era edota 17:00etatik 19:00tarako ordutegian, egingo da izena ematea.

ZORION AGURRAK



Unai
Zure iraganeko onena, zure etorkizuneko txarrera izan dadila. Zorionak!



Uxue
Zorionak ebeko saltserari 13 urte betetzeagatik. Jarraitu horrela!!



Naiara
Zorionak! Zure eguna ederki ospatzeko ordu gutxi geratzen dira! Txintxo ibili!! Ttakuneko lankideen partetik.

JAIOTAKOAK

Aitana Iñigo Avila. Irailaren 1an.
Arianne Lucia Miranda Flores. Abuztuaren 29an.
Maddi Arratibel Aramburu. Abuztuaren 28an.
Naike Herrero Muñoz. Abuztuaren 24an.
Axel Quintana Vicente. Abuztuaren 22an.
Sara Lizarraga Iriondo. Abuztuaren 18an.
Markel Toquero Otegui. Abuztuaren 16an.
Kenia Gassama Clemente. Abuztuaren 16an.
Miguel Romanillos Figueroa. Abuztuaren 11an.
Alaia Peña Anangono. Abuztuaren 10an.
Jule Momo Gonzalo. Abuztuaren 3an.
Malen Ruiz de Garibay Holgado. Uztailaren 30an.
Alma Buenhombre Garbizu. Uztailaren 28an.

HILDAKOAK

Maite Vallejo Gómez. Irailaren 3an.
Iñaki Aizpuru Maiz. Irailaren 3an.
Jesus Garcia Lopez. Abuztuaren 25an.
Joseba Zuaznabar Irulegi. Abuztuaren 25ean.
Felipe Pablo San Jose. Abuztuaren 22an.
Julio Sanchez Sanchez. Abuztuaren 21an.
Sinfiriano Martin Del Rey. Abuztuaren 15an.
Marina Sanchez Calle. Abuztuaren 10an.
Teotimo Ortega Lafuente. Abuztuaren 10an.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu TXINTXARRI-ren bidez zorianzako:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 7	GIL
Larunbata, 8	ACHA-ORBEA
Igandea, 9	ACHA-ORBEA
Astelehena, 10	DE MIGUEL
Astearte, 11	LASA
Asteazkena, 12	GIL
Osteguna, 13	ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUNA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERRI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

GUTUNAK

'Zumarraga' fenomenoa

JULEN BEGIRISTAIN BAZTAN

Jakina da guztionatik Gipuzkoak bizi izan duen gatazka "zaborren" inguruan, batez ere komunikabide handiek bultzatua. Azken aldian ez da ezer entzuten, nahiz eta sare sozialak jarraitu baditugu ikusiko genuke hainbat egoera hondakinak nahastuta, galbidean utziak, edukiontzia gainezka eta antzekoak, zeintzuk beste garai batean portada izango liratenak, baina orain ematen duenez ez dira interesgarriak. Zalantzarik gabe gaia ez da erraza eta are gutxiago ez dago konpondua. Badira errealitate batzuk ordea aztertzea merezi dutenak, baita biderkatzea ere. Gipuzkoako Zumarragan non PSE-PSOE-k duen gehiengo absolutoa, oposizioko alderdi guztiekin (EH Bildu, Eaj eta Irabazi) akordio batera iritsi ziren herrian zuten birziklatze tasa baxua, %45-koa, desblokeatu (2017ko

urtarrilean 140.018 Kg, %46) eta edukiontzia grisaren erabilera mugatzea bi egun finkoetara. Martxorako gauditua zuten %74ko bereizte tasa (189.560Kg). Honek erakusten du akordioa+bilketa eraginkorreko formulak arrakasta dutela. Hau ikusirik orduan, zergatik ez dute lehenetsi Gipuzkoa guztian ahalik eta birziklatze tasa altuenak lortzea? Birziklatze tasa altuak lortzea posible bada, zergatik tematu dira berriro gaidimentsionatua dagoen erraustegia eraikitzen? Zabor tona ikaragarriak behar ditu erraustegiak eta sen onaren aurka doa. Zumarragan posible dena Gipuzkoan ere bada. Ez dugu ulertzen zergatik ez duten bide hau hartu Gipuzkoako udalerrira guztietan, adibide bezala Donostia dugu, %38 batean dagoena, justu herritar gehien bizi den udalerrira. Berdina Irunen, Hondarribian, Lasarten, Andoainen,... Modu berean ez dugu ulertzen erraustegiaren alde apostu egin izana, Gipuzkoako

udalerrira guztiak ekonomikoki hipotekatuko dituen hurrengo 35 urteetan eta bere 15-20km-ren bueltan arriskuan jarriko dituen herritarrek. Metal pisutxuak, furanoak, diosinak eta negutegi efektuko gasek ez dute ezberdinduko kolore politikoen artean, herritar guztiei berdin eragingo digute. Garaiz gaude oraindik akordio handi batera iristeko, zuzen jokatzeko. Borondate politikoa eskatzen dugu, eseri zaitezte eta guztion hobebeharra defendatuko duen akordioa lor ezazue. Bitartean herritarrok kalean jarraituko dugu irtenbide honen alde lanean, alde batetik irailak 9ko estropadetako giza katean eta beste alde batetik urriak 27an eragile sozial eta sindikatuen artean aurreikusten den manifestazio handian.

Ah! Zumarraga fenomenoaren ondoren duten Urretxun ere errepikatzen da, oraingoan PNV-ren gidaritzapean. Egin ezazue bada berdina Gipuzkoa osoan!

OHARRAK

Adineko pertsonen omenaldiko bazkaria

Adineko pertsonen omenaldi astearren barruan, urriaren 7an, igandea, bazkaria antolatu dute Michelingo Kirol gunean

500 pertsonentzako lekua dago. Irailaren 5ean, asteazkenean, irekiko da txartelak eskuratzeko epea eta irailaren 25ean amaituko da. Biyak Bat elkarteko bulegoan goizez 10:30etik 12:30era egingo da banaketa eta 8 euro balio dituzte. Antolatzaileek eskudirutan ordaindu behar dela gogorarazten dute.

Bazkariaren gozatu ahal izateko baldintzak Lasarte-Orian erroldatua egotea eta 1953 urtean edo lehenago jaioa izatea dira. Salbuespen dira 1953 urtearen ondoren jaioak bikotekideak. Lasarte-Orian erroldatuak ez badaude, gainera, 29,15 euro ordaindu beharko dituzte.

Kiroldegiko neguko ordutegia

Herriko kirol instalazioetan neguko ordutegia indarrean dago irailaren 1etik. Kiroldegia astelehenera ostiralera 7:00etatik 22:30era egongo da irekia. Larunbatetan, 9:00etan irekiko ditu ateak eta 20:00etan itxi eta igandetan berri, goizez soilik erabili ahalik dira instalazioak 9:00etatik 13:00etara. Kirol Guneko erabilera ordutegia astelehenera ostiralera 15:30etatik 22:30era da. Larunbatetan goiz eta arratsaldean egongo da irekia, 9:00etatik 20:00etara eta igandetan kiroldegia antzera, goizez 9:00etatik 13:00etara.

ESKELAK

OROIGARRIA



Joseba Zuaznabar Irulegi



2018ko abuztuaren 25an hil zen, 82 urte zituela.

Besarkada handi bat familiari, Ttakun osoaren partetik.

Ttakun Kultur Elkartea

ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN EMAN

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649526766

LANA


ESKARIA

Pertsona zaharrak zaintzeko eskaintzen naiz. Externa bezala, orduka, gauean ospitaleetan, asteburuetan... Telefonoa: 943 40 40 15/ 606 66 10 48.

HEZKUNTZA

Eskolak ematen dira etxean; latina, eskolarako laguntza, ingelesa. Ekonomikoa. Telefonoa: 600 77 60 68

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Kultur kale Zikloa. Udan Lasarte-Oriako auzoak musikaz bete dituen Kultur Kale Zikloaren azken kontzertua eskainiko du Akimbo taldeak. Reggae-pop doinuak izango dira nagusi Okendo plazan. 7 kontzertuz gozatu ahal izan dituzte herritarrek Lasarte-Oriako Udalaren eta Xpression Kren elkarlanari esker. Okendo plaza, 20:00etan.



LASARTE-ORIA Ama Guadalupeko omeneko jaiak. Ama Guadalupeko Extremadura Etxeak bere zaindariaren ohorezko jaiak antolatu ditu. Aurten gainera 40 urte bete ditu elkarteak eta horregatik, egitarau zabala antolatu du astebururako. Extremadurako musikaz, dantzez eta gastronomiaz gozatu ahalko dute elkartera edo Jaizkibel plazara hurbiltzen diren herritarrek. Extremadura etxea, asteburua.

OSTIRALA 7

LASARTE-ORIA Stock azoka

Aterpea Merkatari elkarteko hainbat dendatan merkealdi bereziak izango dira.

Aterpeako dendak, egun osoa.

LASARTE-ORIA Jaiak

Ama Guadalupeko omeneko jaien lehen eguna izango da:

18:00etan, txosnaren irekiera, Jaizkibel plazan.

19:00etan, Oaintxe in deu txaranga Sasoetako kaleetatik.

21:00etan, bandera igoera, Extremadura etxean.

21:15ean, Extremadurako eltzekada, Extremadura etxea.

23:00etan, Los Cabaes taldearen emanaldia, Jaizkibel plaza.

01:00etan, Extremadurako migak.

Extremadura etxea, 18:00etatik aurrera.

ANDOAIN Jaiak

Sorabilla auzoko jaiak ospatuko dira: **18:00etan,** txupinazoa, suziriak eta kanpai errepika.

18:30ean, Iturzaeta Memorialeko palako bi finalen errebantxak. Emakumeak: Irati-Itxasne / Rake-Alaine. Gizonetakoak: Loidi anaiak / Mateo-Aritz.

20:00etan, Araoz abesbatza, San Martin Deuna eliza.

21:00etan, Zikiro jatea.

Ondoren, dantzaldia Los Rubi taldearekin.

02:00etan, Txokolatea eta bizkotxoak.

Sorabilla auzoa, 18:00etatik aurrera.

USURBIL Dokumentala

Heria Xutan zikloari hasiera emateko Tximeletak dokumentala eskainiko dute. Usurbilen Nahi Ditugu eta Usurbilgo gazteek antolatua.

Usurbilgo frontoia, 22:00etan.

LARUNBATA 8

LASARTE-ORIA Jaiak

Ama Guadalupeko omeneko jaien egun handia ospatuko da:

10:30ean, Pintura lehiaketa, 2kn okindegi-kafetegian.

11:30ean, haur-jolas eta tailerrak, Jaizkibel plaza.

12:00etan, extremadur meza Ecos de Monfragüe taldeak lagunduta, Extremadura etxea.

14:00etan, herri bazkaria, Jaizkibel plaza.

17:00etan, Txokolatada haurrentzat.

19:00etan, Nafarroako extremadur etxeko Brotes y Raices koru eta dantza taldearen emanaldia, Jaizkibel plaza.

21:00etan, bazkideen afari ofiziala, Extremadura etxea.

23:00etan, Dantzaldia Ibai Berriak taldean eskutik, Jaizkibel plaza.

Extremadura etxea, egun osoa.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Kultur kale zikloari amaiera emateko, Akimbo taldearen emanaldia izango da. Okendo plaza, 20:00etan.

ANDOAIN Jaiak

Sorabilla auzoko lagunek jaietako egun handia ospatuko dute: **09:30ean,** XI. Belkoango mendi

lasterketa.

11:00etan, Haur lasterketa.

11:30ean, Meza Alberto Agirre abesbatzarekin, Martin Deunaren eliza. Ondoren, auzokide helduentzat hamaiketakoa.

16:00etatik 20:00etara, Puzgarriak eta haur-jolasak.

17:00etan, Ate ireki jardunaldia, Erretore Etxea.

17:30ean, Patata tropikala taldeak Kalean otso, etxean uso haurrentzako anterkia.

19:30ean, Sardina jatea.

20:00etatik 21:00etara, Dantzaldia Alaiki taldearekin.

22:00etatik 02:00etara, Dantzaldia Alaiki taldearekin.

Sorabilla auzoa, egun osoa.

IGANDEA 9

LASARTE-ORIA Jaiak

Ama Guadalupeko omeneko jaien azken eguneko egitaraua:

12:00etan, Duende, Gitanillas eta Zambra andaluziar dantza taldeen emanaldia, Jaizkibel plaza.

14:30ean, Extremadurako arkumeki-gisatua.

18:00etan, 18 urtetik gorakoentzat bola-joko txapelketa.

20:00etan, jaien amaiera eta bandera jaitea.

Extremadura etxea, egun osoan zehar.

ANDOAIN Jaiak

Sorabilla auzoko jaiak ospatuko dira: **11:30ean,** Auzoko eskopeteroak, Aupa Sorabilla txarangaren laguntzaz auzora bisita.

ZINEMA

USURBIL

URBIL

Alpha

Ostirala: 15:50, 18:30, 20:15, 22:20, 00:30.
Larunbata: 15:50, 18:30, 20:15, 22:20, 00:30.
Larunbata: 15:50, 18:30, 20:15, 22:20.

Yucatán

Ostirala: 16:45, 18:00, 19:30, 20:45, 22:15, 00:00.
Larunbata: 16:45, 18:00, 19:30, 20:45, 22:15, 00:00.
Igandea: 16:45,

18:00, 19:30, 20:45, 22:15.

I love dogs

Ostirala: 16:30, 19:00, 21:40, 00:10.
Larunbata: 16:30, 19:00, 21:40, 00:10.
Igandea: 16:30, 19:00, 21:40.

La monja

Ostirala: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Larunbata: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Igandea: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

Megalodón
Ostirala: 16:10,

22:10, 00:20.
Larunbata: 16:10, 22:10, 00:20.
Igandea: 16:10, 22:10.

Teen Titans GO

La Película
Ostirala: 16:00, 18:05, 20:05.
Larunbata: 16:00, 18:05, 20:05.
Igandea: 16:00, 18:05, 20:05.

Los Increíbles 2

Ostirala: 15:50, 18:40, 21:20.
Larunbata: 15:50, 18:40, 21:20.
Igandea: 15:50, 18:40, 21:20.
Mamá y Papá
Ostirala: 20:40, 00:45.

Larunbata: 20:40, 00:45.
Igandea: 20:40.
Los futbolísimos
Ostirala: 15:45, 18:00.

Larunbata: 15:45, 18:00.

El mejor verano de mi vida

Ostirala: 22:40, 00:35.
Larunbata: 22:40, 00:35.
Igandea: 22:40.

¿Quién está matando a los moñecos?

Ostirala: 01:00.
Larunbata: 01:00.

ASTEARTEA 11

ASTIGARRAGA Solasaldia

Jasone Osoro idazlearekin 12etan bermuta eleberriko pasarte batzuk hartuko dira emakumeei buruz edo beren inguruko gaiez hitz egiteko. Kultur etxea, 18:00etan.

OSTEGUNA 12

URNIETA Ikastaroa

Ramon Saizarbitoria idazleak Indarkeria eta kontaera literarioa ikastaroa eskainiko du. Elkarbizik antolatutako ekintza honetan izena eman behar da, ganboiturri@gmail.com, irailaren 10a baino lehen. Lekaiokultur etxea, 19:00etan.



Urtero bazkideen afari ofiziala egiten du Ama Guadalupekoa Extremadura Etxeak. TXINTXARRI

Extremaduraren jaieguna, 40. urteurrenean

Extremaduratik etorritakoen bilgune da Ama Guadalupekoa elkarteak. Orain 40 urte sortu zuten, Lasarte-Orian jaioterriko ohiturei eusteko. Asteburu berezia dute aurretik

Txintxarri

Herri mina norberak barruan daraman sentimendua da. Ez du sekula alde egiten, baina zama hori arindu egin ohi da egoera berean dauden herrikideen konpainian. Extremaduratik etorritakoen bilgune da Ama Guadalupekoa Extremadura Etxeak elkarteak, hain zuzen jaioterriko ohitura horiei eusteko Lasarte-Orian bertan. Urtero antolatzen duten festa berezia hasiko dute gaur: Extremadurako eguna, Guadalupeko Ama Birjina zaindariaren eguna.

Otsailean bete zuten elkarteak 40 urte; 1978eko otsailaren 17an sortu zuten elkarteak. Orduetik Extremaduratik iritsitakoen bilgune izan da. Baina asko zabaldu da sarea. "Haien seme-alabak eta senitartekoak ere badaude elkarteak. Horiek ere nahi dituzte haien sustraiak gorde", azaldu du Angel Barrerak. "Ni adibidez ez naiz Extremadurakoa, hemen jaioa

naiz. Baina beste askok bezala, harreman handia dut Extremadurarekin, urtean bizpahiru alditan joaten naiz familia bisitatzeraz".

Beti zaintzen dute Extremaduraren eguna, baina aurten are arreta gehiago jarri dute. "Los Cabales taldea ekarri dugu Extremaduratik. Agian hemen ez dira horren ezagunak, baina oso onak dira, eta oso famatuak han". Gaur bertan joko dute, 23:00etan.

Musika eta dantza

Baina dantza eta musikaz aparte, bada beste osagai garrantzitsu bat elkarteak: gastronomia. Urtean zehar Lasarte-Orian egiten diren ekitaldietan ematen dituzte probatzera miga famatuak.

Asteburu honetan ere ez da jatekoa faltako. Migez gainera, izango da aukera Extremadurako jaki tipikoak jateko: *kozidoa* eta paella. Horrez gainera, larunbatean egingo dute elkarteak bazkideen afari ofiziala. Garrantzitsuak dira ekintza horiek, ohiturak ez galtzeko eta ordu batzuek herrimina apaltzeko.

MATRIKULAZIOA ZABALIK eman izena!

- Euskarako klaseak: A1, A2, B1, B2 eta C1 (EGA).
- Aurrez aurreko eskolak.
 - Autoikaskuntza.
 - "On-line" aukera.

Muntteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea 17, behe, 20160 Lasarte-Oria • 943 37 28 63 • lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com.es

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak 2018 bildumakoak dira

Gama altuko
2 mó progresibo
229€

www.multioplicasgipuzkoa.com

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan